

Harrera, orientazioa, aholkularitza, balorazioa eta diagnostiko soziala edo/eta soziala eta hezkuntza arlokoa egiteko zerbitzua, eta prebentzio eta sustapen sozialekoa Gizarteratze Programan.

Prestazio mota: Bermatua.

Baliabide mota: Arreta anbulatorioko zerbitzua.

Baliabidearen xedea:

Banakakoaren/familiaren arreta:

- Pertsonen behar sozialak atzematea, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetera igortzeko.

Arreta komunitarioa:

- Elkarteak eta herritar guztiak gizarteratzearen alde egiten duten bestelako laguntza sozialerako bideak bultzatu eta sustatzea, eta populazio osoari edo/eta gizatalde zehatzei zuzendutako jarrera sozial positiboen alde egitea.

Onuradunak: 18tik 65 urtera bitarteko pertsonak, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan daudenak.

Jasotzeko baldintzak: Harrera eta orientazio sozialeko programatik bideratua izatea.

Zerbitzuaren intentsitatea:

- Harrera: hitzordua oinarrizko gizarte zerbitzuan.
- Orientazio soziala eta aholkularitza: ordu erdiko elkarrizketa.
- Eskaeren balorazioa eta diagnostiko soziala eta/edo soziala eta hezkuntza arlokoa: Esku-hartzearen edo bideratzearen egokitasunari buruzko txosten sozial bat egitea.
- Espedientea irekitzea Erabiltzaileen Informazio Sistematan.
- Sustapen soziala eta prebentzioa: Urteko programazio bat, prestazioen xedea beteko duten jarduketak biltzen dituen, lehentasunen arabera ordenatuta.

Emateko epea: Hilabetea.

Ordainketan parte hartzea: Ez.

Jarduteko eremua: Oinarrizko eskualdea.

